

## KULTURA: SORMENA ETA TRANSMISIOA

### 0.- SARRERA.

Dokumentu honetan arlokako saioetarako oinarrizko informazio bat jaso dugu. Zehazki honako atalak azaltzen dira:

1. Arloak edo arloek hizkuntzaren ikuspegitik duten garrantziari buruzko balorazioa.
2. Arloko hizkuntza egoerari buruzko hainbat adierazle eta balorazio (4. puntuari informazio hau garatuago dago, nahi duenarentzat)
3. Arloan garatu diren edo planteatu diren egitasmo nagusien zerrenda eta horien balorazioa.
- 4.- Arloko hizkuntza egoerari buruzko adierazleen azalpen xeheagoa dakarren atala. (**Sakondu nahi duenarentzat**)

### 1.- ARLOEN GARRANTZIA.

Adituen artean adostasun zabala dago haur eta nerabeetan “**etxea, eskola, eskolaz kanpoko jarduerak**” hirukoa lehentasunezko eremu izendatzerakoan. Eremu horiek, **komunikabide eta kultur-kontsumoarekin** batera, azaltzen dira ARRUE ikerketan<sup>1</sup> gazteen erabileran eragin handienekotzat.

Badira hainbat faktore arlo soziokulturala euskararen normalkuntzarako garrantzitsu bihurtzen dutenak: sozializazio-eremu nagusietakoak dira, egunean denbora-tarte handia hartzen dutenak; euskara mundu ludikoarekin, bizipen positiboekin, lotzen du; jarduera antolatuetan sortzen diren harremanak lagunarte arautu gabeetarako zubi izaten dira...

Nagusiki edo soilik eskolaren eskutik euskaldundutako gazteen harreman sareetan (etxea, lagunartea, kale-giroa, lantokia) euskara oso ahula baldin bada, euskaratik urrun geratuko dira haiek. Eta etxetik euskaldundutako harreman sareetan ahul baldin bada euskara, edo euskararekiko kontzientzia ahula baldin bada, lehen hizkuntza izatetik bigarrena izatera pasatzeko arriskuan izango dira horiek.

(*Eta hemendik aurrera zer? 2016. Eusko Jaurlaritza. Euskararen Aholku batzordea*).

Bestalde, ezin ahaztu kultura kontsumoak, hedabideek... hizkuntza elikatzeko iturri diren neurrian.

<sup>1</sup> EAEko Ikasleen Euskararen Erabilera eskola-giroan, 2011-2015. Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra

**2.- ADIERAZLE NAGUSIAK.**

ADIERAZLEA	DATUAK	ONDORIOA
ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK	<p>Kultura: Elkarteak: Musika Eskolan ikasleen ia %100 euskaraz. 2 ikasle ari dira gaztelaniaz. Udala: Zinema: %13 euskaraz, gehienak haurrentzako. Umeentzako filmen %40 euskaraz. Antzerkiak, hitzaldiak... %90 euskaraz.</p> <p>Liburutegiko maileguak euskaraz: erabiltzaile helduenak, %15. Umeenak, %61.</p>	Kultura Elkarteak: Musika eskola, antzerki eskola, bertso eskola, euskal dantzak eta orfeoia: eskaintza osoa praktikan euskaraz.

**3.- JARDUERAK, BALORAZIOAK.** Bideratu diren edo bideratzea aurreikusi zen egitasmoak.

Arloak eta egitasmoak	EUSKARA ZERBITZUAREN BALORAZIOA		HERRITARREN GALDETEGIA
	Indarguneak	Hobetzekoak	Balorazioak
<p><b>6. Arlo soziokulturala: kirola, aisia, kultura</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Eskolaz kanpoko jarduerak (kirola, aisia, kultura...) euskalduntzeko egitasmo berria sortzea, antolatzen dituzten jarduerak (entrenamenduak, entseguak, ikastaroak...) euskaraz izateaz gain, ingurua ere euskalduna izateko.</li> <li>Koldo Eleizalde lehiaketak. Sorkuntzarako eragina indartzeko bideak jorratu.</li> </ul>	<p>Bereziki antzerki eta interpretazio arloan bilakaera oso positiboa izan da bi ekimenen eraginez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Koldo Eleizalde lehiaketako sortze-lanak hobetzeko tailerrak antolatu dira ikastetxeekin batera.</li> <li>Ikastetxeetan antzerkia lantzen hasi dira, Debagoieneko Antzerki Plataformaren eskutik eta udalaren laguntzarekin, eta oso balorazio positiboa jaso da.</li> </ul>	<p>Eskolaz kanpoko jarduerak euskalduntzeko egitasmo berria ez da landu. Ikastetxeekin gaia lantzeko mintegia eratu nahi zen baina ez da egin. Orain baloratzekoa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hizkuntza ludiko bihurtu, umeek eskola hutsarekin lotu ez dezaten: jolasarekin lotu, aisiarekin, lagunartearekin...</li> <li>Eskola segregazioan eragin, eskolaz kanpoko ekintza bateratuak...</li> <li>Umeentzako Seminarixoko eskaintza euskaraz. Hilean 3-4 saiotatik euskarazkoa bakarria izatea gutxiegi.</li> <li>Hizkuntza eta kultura uztartzea.</li> </ul>

**4.- DIAGNOSIKO INFORMAZIO ZEHATZAGOA**

**5.1.- Partehartzea eta hizkuntza, 2023-24 ikasturtean, 18 urtez azpikoen artean: kultura.**

**a. Kultura arloa**

		Partaid.	Mut	Nes	Mut %	Nes %	Etorki.	Eus %
<b>Elkartek</b>	Musika eskola	649*	209	440	32	68	4	<b>99</b>
	Antzerki eskola	20	2	18	10	90		<b>100</b>
	Bertso eskola	7	2	5	29	71		<b>100</b>
	Euskal dantzak ME	59	5	54	8	92		<b>100</b>
	Euskal dantzak. Moises Azpiazu							<b>100</b>
	Orfeoi gaztea	10	1	9				<b>100</b>
Entitate pribatuak	Candem Twon	Ez dugu daturik						

**Oharrak:**

- **\*Musika eskola, 649 partaide:** ez daude 649 lagun matrikulatuta eskolan, pertsona berak jarduera bat baino gehiagotan har dezakeelako parte.

**5.2.- Udalaren kultur eskaintzaren hizkuntza.** Udaleko Kultura zerbitzuaren ekitaldien datuetatik.

- Zinema kenduta, Udalak antolatzen dituen eta ahozko hizkuntza oinarri nagusi duten kultur jardueren (antzerki, hitzaldi, ikastaro, ipuin-kontaketa eta abarren...) %90 inguru dira euskaraz.
- Zinemaren kasuan, 2023an eskaini ziren filma guztien %13 izan ziren euskaraz, horietatik gehienak haurrentzakoak. Haurrentzako filmen %40 izan ziren euskarazkoak.

**5.3.- Udal liburutegiko maileguen hizkuntza.** 2023ko datuak.

**a) Bazkideak.**

Helduak			Haurrak (14 urtera arte)		
Guztira	Gizonezko	Emakume	Guztira	Gizonezko	Emakume
4811	1938	2873	1146	567	579
	%40	%60		%49	%51

**b) Maileguak.** Generoaren eta adinaren arabera.

	Guztira	Kopuru absolutuak		%	
		Euskaraz	Gaztel.	Euskaraz	Gaztel.
Heldua, gizonezkoa	1906	327	1579	17	83
Heldua, emakumea	6563	976	5587	15	85
Haurra, gizonezkoa	2749	1697	1052	62	38
Haurra, emakumea	3730	2286	1444	61	39

\*Betaurreko moreak: Eremu gehienetan parez pare lanean emakume- eta gizon-kopuru bertsua edo emakume gehiago dauden arren, kanon hegemonikoak gizonezkoek osatzen dituzte euskal kulturaren nahiz literaturaren, eta publikoki entzuten diren ahots gehienak gizonezkoenak dira. Gero, Euskal Herrian emakumeek

mantentzen dute kultura, emakumea da euskal kulturaren kontsumitzailea, literaturarena bereziki, hein handi batean eta kulturarena, oro har, hizkuntza batean zein bestean. Hori Europa osoko joera da.

4.- Herriko musika taldeen sortze-hizkuntza.

**ORAINDIK DATURIK EZ. ESKATUTA**